

Ikastolen hogeita batgarren mendeko erronkak: etengabeko ametsari eutsiz

VICENTE, Pilar
San Fermin Ikastolako zuzendaria

Euskaltzain jaun-andereak,
Ikastolako guraso eta profesionalak,
Gainerako adiskide eta lagunak:
Arratsalde on eta eskerrik asko etortzeagatik.

«Ikastolen hogeita batgarren mendeko erronkak: etengabeko ametsari eutsiz», horixe da hitzaldiaren izenburua. Nahita aukeratu dut amets hitza, ikastolen ibilbidea ulertzeko ezinbestekoa delakoan.

Ikastolako sarreran San Fermin sortu zutenen omenezko arte-lan bat dago, honako esaldia duena: «Ametsa egia bihurtu zuten guztiak gogoan». Duela berrogei urtetik gora, ameslari eta ausarta izan behar baitzen, dudarik gabe, ikastolen sorreran parte hartzeko. Kikiltzen ez zirenetakoak izanik, euskaltzale haiek eutsi egin zioten erronkari, ametsari, eta haiei esker gaude gu gaur hemen bilduak, beste ameslari baten izena duen aretoan: Etxepare aretoan.

Baxenabartarrak «Euskara jalgi hadi mundura» idatzi zuen 1545ean, euskaraz argitaratutako lehen liburuan. Euskara beste hizkuntzen mailan ikus-tea zen haren ametsa. Handik ehun urtera, Axular handiak *Gero* liburu ospetsua idatzi zuen, eta irakurlearendako hasierako oharretan lezio ahaz-tezina utzi zigun:

«Baldin egin baliz euskaraz hanbat liburu, nola egin baita latinez,
frantsesez, edo bertze erdaraz eta hizkuntzaz, hek bezain aberats eta

Euskera. 2012, 57, 1-2. 63-69. Bilbo
ISSN 0210-1564

konplitu izanen zen euskara ere, eta baldin hala ezpada, euskaldunek berek dute falta eta ez euskarak».

Etxeparek zein Axularrek amestu zuten pizkundea hogeigarren mendean heldu zen, bereziki hirurogeiko hamarkadatik aurrera. Garai hartan euskal kulturarentzat giltzarri diren bi gertaera azpimarratu behar dira, biak elkarri lotuta: ikastolen sorrera eta euskararen batasuna.

Ikastolen sortzaileek bazekiten eskolan zuela euskarak hil edo biziko apustua. Eta apustua zaila izan arren, baikor eta kementsu jokatu zuten, garaiko zailtasunei aurre eginez, ametsa egia bihur daitekeela erakutsiz. Beste horrenbeste esan daiteke hasierako profesionali buruz.

Ikastola herritik eta herrirako sorturiko eskola da. Berritzailea, noski, hizkuntza eredu berria ekarri zuelako, euskara irakaskuntzaren ardatz bihurtuz. Baina berritzailea, halaber, pedagogian. Gogoratu duela berrogei urte ikastetxe gehienetan neskak eta mutikoak bereizi egiten zituztela. Gure aurrekoak aitzindariak izan ziren irakaskuntza mistoaren eta, oro har, pedagogia berriaren aldeko apustuan. Antolaketari dagokionez ere, ikastolek eredu berria eskaini zuten. Gureak kooperatibak dira, eta gurasoak ikastolaren martxan protagonista zuzenak dira.

Euskal Herriko hainbat tokitan ikastolak martxan jartzen ari zirenean, esan bezala, Euskaltzaindiak garrantzi handiko erabakia hartu zuen: euskara arautu, batu egin zuen. Gaurko talaiatik ikusita begi bistakoa da Euskaltzaindiak erabaki hori hartu izan ez balu, euskara hankamotz geratuko zela, administrazio, komunikabide eta irakaskuntzatik kanpo eta, beraz, etorkizunik gabe, hiltzera kondenaturik.

Gurea ez, baizik eta gure aurrekoen meritua denez, lasai esan dezakegu: Etxepare eta Axularren ametsa egia bihurtu bada, neurri handi batean, Euskaltzaindiak eta ikastolek eginiko lanari esker izan da. Badira, jakina, horren alde aritu diren beste asko, hainbat esparrutan, hala nola, unibertsitatean, helduen irakaskuntzan edota enpresa munduan.

Eta bide horretan hasieratik aipatu dudan etengabeko ametsa behar-beharrezkotzat jotzen dut. «Bizitza bizikleta bezalakoa da: aurrera eragin behar zaie pedalei, oreka ez galtzeko», Albert Einsteinek esan omen zuen hori.

Hura bezain argia ez izan arren, guk ere badakigu pedalei etengabe eragin behar zaiela, bestela tokian gelditu eta, azkenean, lurrera eroriko garelako.

Bada, Axular gogoan, ni ere «luzamendutan ibili gabe» etorkizuneko erronka horietako batzuk aletuko ditut jarraian.

Mundu irekian, euskaldunak

Gurera etortzen diren ikasleek edukiak, gaitasunak eta trebetasunak be-
reganatzea da gure erronka nagusienetakoa, baina ez bakarra: ezin ditugu
balioak ahantzi, ikastolen hasieratik funtsezkoak dira (euskara eta euskal
kulturarenganako maitasuna, elkartasuna, errespetua, kritikotasuna, ingu-
rumenarekiko konpromisoa, gizarte hobea eraikitzeko grina...).

Euskara da, hasieran bezala, gure irakaskuntza ereduaren oinarri eta ar-
datza, baina ez hizkuntza bakarra. Ikastoletan duela hogeitaz gora hasi
ginen eleaniztasuna lantzen, *Eleanitz* proiektuaren bitartez; euskara ardatz
harturik, gure ikasleek gaztelania, ingelesa eta frantsesa ikasteko aukera
dute. Betiere, komunikazio gaitasuna lehenetsiz, hizkuntzak erabiliz ikasten
baitira.

Munduan euskaldun eta munduari zabalik, kanpoko kulturak eta eskolak
ezagutzeko asmoz, horrek aberastu egiten gaituelako. San Fermin Ikastolan
2003. urtean hasi ginen trukaketak egiten Europako beste herri batzuetako
ikastetxeekin. Geroztik gure ikasle eta irakasleek Finlandia, Frantzia, Italia,
Norvegia, Hungaria, Turkia eta Belgikako ikastetxeekin harremana izan
dute. Harreman horiek oso aberasgarriak izan dira guztiontzat, elkarrengan-
dik asko ikasi dugulako.

Bide honetatik segitzea da, gure ustez, etorkizuneko erronketako bat.

Profesional talde sendoa

Ikastoletan kalitate handiko irakaskuntza eskaini behar dugu, kalitatea
baita gure etorkizuna bermatuko duena. Eta ikastetxe batean profesionalek

ematen dute kalitatea, eraikin eta instalazio guztiak baino garrantzitsuagoak direlako.

Hausnarketa eginbehar profesionaleri eskatu beharreko gaitasunen inguruan: zer nolako profesionalak behar ditugun, nola aukeratu, nolako harre-
ra egin ikastolan behar bezala txerta daitezen, nola prestatu... Gure profesio-
nalen aukeraketa eta kudeaketa funtsezkoa denez, arlo horretan egin
daitekeen guztia garrantzi handikotzat jotzen dut.

Ikastola askotan –gurean, esaterako– eskarmentu handiko profesionalak sartu berriekin ari dira lanean, eta nahasketa hori ere aberasgarria da, elkar-
rrengandik ikasteko aukera ematen duelako.

Ikastoletako profesionalen prestakuntza da, dudarik gabe, aipatu beha-
rreko beste erronka bat. Mundu oso aldakorrean bizi gara, eta begi bistakoa
da gaur egun prestakuntza-aldia ez dela ikasle-garaira mugatzen, etengabe-
koa behar baitu. Horretarako ikastolen elkarlana ez ezik, ona litzateke ikas-
toletatik kanpo ere bidea urratzen lagunduko digutenekin lan egitea, uni-
bertsitateekin, esate baterako.

Ikastoletako zuzendaritzaz ere hitz pare bat. Zuzendaritza talde sendoak,
konpromisoa hartzeko prest dauden profesionalek osatuak, pedagogi arloan
lidergoa erakuts dezaketen irakasleak: horrek eguneroko arazo eta erronkei
aurre egiteko gai izatea eskatzen du, baina baita ere etorkizunaz hausnarke-
ta egitea ere. Azken finean, etengabeko hobekuntzaren bidean aitzina egi-
teko gogo eta adorea dituen jendea behar dugu.

Baina zuzendaritzako kideei ez ezik, gainerako profesionaleri ere konpro-
misoa eskatu behar zaie, aldi berean autonomia emanaz, kudeatzeko ahal-
mena aitortuz. Gure kasuan, Oinarrizko Kudeaketa Unitateak izenekoak
dira antolaketaren ardatza. Gure profesionaltasuna ikaslearen garapenaren
zerbitzura jarri behar dugu. Xede hori ahalik eta hobekien lortzeko lanean
ari gara gu, taldeka, elkarlanean.

Gaitasunak

Ez da nolana hiko eskolari eskatzen zaiona: ikasleari edukiak irakasteaz gain, gaitasunak, trebetasunak, balio onak... erakutsi behar zaizkio. Argi dago hori dena ezin dela utzi soilik eskolaren bizkar gainean, familiek ere zeregin handia baitute, baina guri dagokiguna txukun egiten saiatuko gara.

- Komunikatzen ikastea.
- Norbera izaten ikastea.
- Pentsatzen eta ikasten ikastea.
- Egiten eta ekiten ikastea.

Eta elkarrekin bizitzen ikastea, noski.

Azken urteotan, ahalegin berezia egin dugu gure ikastolan bizikidetzaz zaintzeko, elkarbizitza eredugarria helburu. Arazo eta liskarrak saihestezinak dira, baina horiek gainditzeko bide berriak urratu daitezke, ikasleei horretan ere protagonismoa emanez, ikasle bitartekariaren bidez, profesionalendako prestakuntza hobetuz...

Arazo eta gatazkez ari garenez, ikastolen azken jardunaldi pedagogikoe-tan aztertutako gai bat ere aipatu nahi nuke. Han *Unesco* eta *Baketik* erakundeek proposamen interesgarriak egin zizkiguten Euskal Herriak bizi duen garai berri honetarako. Guztion esku dago bizikidetzaz eredu egokiaren aldeko apustua egitea.

Materiala eta I+G+i

Ikastolak, hasieratik eta halabeharrez, euskarazko materialen sortzaileak izan gara. Euskarazko materialik ezak behartu gintuen horretara. Horra hor eskasiak sorturiko alde mesedegarria.

Horretan segitu behar da, jo eta ke, ikastola guztiak bat eginik, etengabeko hobekuntza helburu, eta betiere gure materialak beste ikastetxeei ere eskainiz.

Asmatzen jarraitu beharra dago, baita ikerketa eta garapen arloan ere, punta-puntako ikastetxeak izaten segitu nahi badugu. Etxeko jendearekin eta kanpokoekin harremanetan, hezkuntza produktuak garatzeko.

Hezkuntza proiektua, eta eraikinak

Guk geuk gure eraikinak pentsatzen eta egiten ditugu. Etorkizuneko beste erronketako bat da, nire ustez, irakaskuntza-eremuak antolatzen jakitea. Ez da txantxetako gauza, ezta kontu erraza ere, egoera oso aldakorrean epe luzerako eraikin eta instalazioak zehaztu behar izaten baititugu. Ikastolaren eraikin berria pentsatuta egon beharko da hiru elkarrizketa mota erantzuteko: irakasle-ikasle, ikasle-ikasle, norberarekin. Gaur egun sarean ari gara lanean, teknologia berriek garrantzi handia daukate, eta handiagoa izanen omen dute etorkizunean.

Gure hezkuntza proiektuaren arabera eta etorkizunari begira, finkatu behar ditugu eraikin eta instalazioak. Eta horretan asmatzeko funtsezkoa da ikastoletako profesionalen eta arkitektoen arteko elkarlana.

Gurasoekin elkarlanean, auzolana

Esan bezala, ikastolak herritik eta herrirako sortu ziren. Elkarri lekukoa emanez egin dugu berrogei urtetik gorako bidea. Elkartasuna izan da gure ereduaren ezaugarri nagusienetakoa: batetik, hobeki dabiltzan ikastolak besteei laguntzeko prest daudelako; bestetik, gurasoek etorkizuneko familiak ere gogoan dituztelako ikastolan lanean ari direnean.

Kontuan hartzekoa da hau bezalako ikastola batean era guztietako profesionalak ditugula gurasoen artean. Ikastolaren kudeaketan parte hartzeko moduak oso ezberdinak dira, eta denak dira inportanteak. Gogotsu datorren aitak edo amak aurkituko du gurean gogo hori asetzeko modurik. Eta, nire uste apalean, lan hori ikastolarentzat ez ezik, aita edo amarentzat ere oso aberasgarria izanen da.

San Fermin Ikastolak betidanik frogatu du zenbateraino den garrantzitsua gurasoen konpromisoa. Aurtengo Nafarroa Oinezen asko dira konpromisoari eusten diotenak, eta horixe dugu, nire ustez, ikastolen altxor ederenetakoa.

Etengabeko ametsei eutsiz

Ikastolen erronka nagusi batzuk aletu ondoren, hasierara bueltatuko naiz. Areto honi izena ematen dion Etxepare edo San Ferminen sortzaile nekaezinak gogoan, ametsei eutsi behar diegu. Auzolanean eta lekukoa elkarri emanez egin dugun ibilbidean, guri dagokigu orain gure onena ematea, ikastolek aurrera egin dezaten. Eta amesten segituz, hori baita aurrera egiteko modu bakarra.

Nago etorkizunari begira euskalgintzan ari garen guztion arteko harremanak sendotzea dela erronka handienetakoa, horrek bidean aurrera egitea erraztuko baitigu.

Etxeparek amets bat izan zuen: euskara «inprimatua» ikusi nahi zuen, gurea beste hizkuntzen maila berekoa zela frogatzeko. Gure aurrekoek ere euskara irakaskuntzaren ardatz bihurtzeko ametsa egia bihurtu zuten.

Aurrekoen euskaltzaletasuna, konpromisoa eta kemena gogoan, orain guri dagokigu bidean aurrera egitea.

Esker aunitz!